

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Pagalday Garro

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1927-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Arana kalean jaio zen, gurasoak Bolibar auzokoak izan arren. Eskolan hiru urterekin hasi eta sei urtera arte mojekin ibili zen, eta geroago "Beheko eskolan". Gerra garaia gurasoen baserrian pasa zuten, Bolibar auzoan. Gerra ostean, 13 urterekin, Deustuko salesiarretan barneko ikasle izan zen industri maisutza ikasten zuen bitartean; eta handik Bilbora pasa zen industri peritu izateko ikastera. Eskoriatzara itzuli eta aitak (beste bazkide batzuekin batera) sortutako TESA lantegian hasi zen lanean 1952an. Ordutik bidaia ugari egin izan du Europako hainbat herrialdetara, baita Amerikara ere. TESA lantegiari buruzko eta sarrailagintzari buruzko hainbat azalpen eman ditu elkarrizketa honetan.

Zintak

ESK-043

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-04-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

ESK-044

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2009-04-27
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Bilbora ikastera

- **Erref:** ESK-043/004
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Aita Goribarkoa zen, eta ama Garroena, Goribarkoa baita ere. Baina bera kalean jaio eta bizi izan da. 13 urterekin salesiarretara joan zen ikastera, Deustura. "Perito industrial" egin zuen Bilbon. Tesan egon zen lanean 1952tik 1992an erretiroa hartu arte.

2. Jose Arana eskoriatzarra

- **Erref:** ESK-043/006
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:05:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Arana kalean jaio zen, ez du gogoan zenbakia: 5 ala 8. Bere etxea bota egin zuten. Jose Arana Eskoriatzakoa zen, kale horretan jaioa. Garibai kalean hil zen, Donostian; hura hasi zen Aste Nagusia antolatzen. Eskoriatzako eskolek bere izena zuten. Dirua utzi zuen herrirako, eskolak egiteko eta ura ekartzeko.

3. Hiru urterekin mojetara

- **Erref:** ESK-043/007
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:05:04. **Bukatu:** 00:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola orain ospitaleak dauden tokian zegoen. 3-6 urte artean mojekin egon zen; gero, beheko eskolan. Eta ondoren Arana eskoletara, gora. Gerrak harrapatu zituen: 1937ko apirila arte ez zen eskolarik egon. Gero, nahiko ondo. Lehen 10-14 urte bitartekoak elkarrekin egoten ziren. Mutilak eta neskek aparte.

4. Eskolan erdaraz, kalean euskaraz

- **Erref:** ESK-043/008
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:07:26. **Bukatu:** 00:08:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Eskolak erdaraz izan ziren beti, gerra aurrean ere bai. Etxean eta kalean beti euskaraz. Hika egiten zuten. Apurtxo bat galdu egin da hori. Apaizari berorika egiten zitzaion, medikuari ere bai.</p>

5. Umetako jolasak

- **Erref:** ESK-043/010
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:08:57. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Kontzejupean jolasten zuten pilotan, eta futbolean frontoian. 1936an, San Pedroetan inauguratu ziren bi horma. Atano III joan zen, eta Arriaran anaiak ere bai, jokatzera. "Euskaldun kirol tokia" jartzen zuen. Ezkailuak harrapatzen zituzten errekan, karramarroak. Kanikekin eta intxaurrekin, txapekin ere bai. Banderaka jolasa nola zen. Intxaurren jolasa, intxaurrea zulora sartzen. Trokelarekin egindako txapak hormara botatzen.

6. Sasoi bateko garraioak

- **Erref:** ESK-043/012
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:13:50. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk

Laburpena:

<p>Oinez ibiltzen ziren, ziztu bizian kalean, uluka. Bi auto zeuden herrian. Eibar-Gasteiz autobusa pasatzen zen. Gasteiztik Ondarroara errege bidea zegoen eta dilijentziak pasatzen ziren garai batean. Trena Vasconavarros zen, eta Maltzagatik Gasteizera joaten zen. Eskoriatzartik Donostiara joateko hiru ordu behar ziren eta Gasteizera ordubete. Orain, autopistatik 12 minutu.</p>

7. Trenak

- **Erref:** ESK-043/013
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:18:19

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Trenak. Goizean bi pasatzen ziren, eguerdian beste bat eta arratsaldean beste bi. 1937an elektrifikatu zen trena, eta 1967an kendu zuten. Zahartu egin ziren makinak eta trenbideak. Pena izan zen kentzea, hobetu beharrean. Jendea joaten zen Gasteizera; osaba-eta saltzera joaten ziren, baserriko gauzekin. Aitona-amonak oinez joaten zirela dauka entzunda. Gerra aurretik bazegoen trena.</p>

8. Automobilak eta bizikletak

- **Erref:** ESK-043/014
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:19. **Bukatu:** 00:20:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Medikuak automobila zeukan, baina baserrira joateko zaldia zeukan. Hiru gurpileko automobila zuen bere aitapuntakoak, txikitxoak. Gerra garaian Hispano-suiza bat ere bazegoen, eta ondoren beste bi. Baina gasolinarik ez zegoen. Bizikleta bazuten. Fielatoa zegoen Arabara joateko. Bizikletarekin joanda erreal bat kobratzen zuten, eta bueltan berriro eman; baina hori lehenagoko kontua da. Arrasatera joaten zen txirrinduan, dentistarengana.

9. Argi zentralak

- **Erref:** ESK-043/016
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 00:20:51. **Bukatu:** 00:23:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Ura eta argia bazuten etxean, baina urarentzat zentral txikiak zeuden. Olazarrek ematen zuen argia, baina tentsio baxukoa. Goribarko errotrak auzorako ematen zuen argia. Beste zentralak. Pelton eta Francis turbinak. Iberduero. Iberdrola. 1967 inguruan Garoña zentral nuklearrerako erreaktorea pasatu zen Eskoriatzatik. Berari egokitu zitzaion sarrailek begiratzea. Franco joan zen hurrengo egunean, inauguratzera.

10. Lehen 15 apaiz, orain bakarra

- **Erref:** ESK-043/020
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:25:16. **Bukatu:** 00:26:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eskoriatzan 14 edo 15 apaiz zeuden. San Viatorren beste bi zeuden. Zazpi auzoeliza zeuden, eta bakoitzean apaiz bana. Eta orain apaiz bakarra dago Eskoriatza eta Aretxabaletarako.

11. Lehen ume asko auzoan

- **Erref:** ESK-043/022
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:27:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak

Laburpena:

Familia askotan ume asko zeuden. Mendiola auzoan 100 neska-mutil zeuden. Euskal Herriko ohituren arabera, maiorazkoa geratzen zen baserriarekin. Asko joaten ziren moja eta fraide. Orain bikoteko 1,1 ume daude, gutxiegi.

12. Herriko medikuak

- **Erref:** ESK-043/026
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:30:09. **Bukatu:** 00:33:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Domingo Arieta zen medikua eta aurrekoa Jose Albizu. Medikuarengana joaten zena laster hilko zela pentsatzen zuten. Gizarte Segurantzaz iritsi zenean, Jesus Aspe etorri zen. Medikua etxera joaten zen, eta pilulak errezetatuz gero handik hiru egunera joaten zen berriro, kontrolatzera. Medikuek gurasoak eta familia guztiak ezagutzen zituen. Analisisik ez zen egiten lehen, plakarik ere ez. Ospitalerik ez zegoen inguruan, eta anbulantziarik ere ez. Laguntzailerik ez zuen medikuak.</p>

13. Etxean erditzea

- **Erref:** ESK-043/027
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:34:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Umeak etxeetan jaiotzen ziren. Andreraren batek laguntzen zion orduan

medikuari. Erditzeetan batzuetan arazoak egon daitezke, eta hobe da ospitalean. Zortzi egunean oilo salda edaten egoten zen emakumea, eta gizonak oiloa jaten zuen. Ohitura horren arrazoiak.

14. Frontea eta granadak

- **Erref:** ESK-043/029
- **Iraupena:** 0:04:12. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:38:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Frontea non egon zen. Gudariak non egon ziren: Asentzio mendian, besteak beste. Soldaduak herrian bertan eta Latan. San Viatorren egon ziren metrailadoreak. Tiroak. Balak topatzen ibili ziren. Gerra denboran, aitaren baserrira joan ziren; ihesi irten ziren, esan zietelako bonbardatu egin behar zutela dena. Granada bat non erori zen, eztanda egin gabe. Lurrean etzanda, granadak goitik behera. Gauez, morteroekin. Elizan babeslekua zegoen. Azken egunetan granada handiekin ibili ziren. Lagun bat besoan zauritu zuten eta andre bat sabelean.

15. Gerra nola hasi zen

- **Erref:** ESK-043/031
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:39:25. **Bukatu:** 00:42:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika

Laburpena:

Etxearen aldamenean bonba bat erori zen, baina txikia; elizan beste bat. Gerra nola hasi zen. Aita saltzailea zen, eta ikusi zuen Madrilén komentuak erre eta apaizak hiltzen zituztela; zerbait gertatuko zela esaten zuen. Urriko matxinada eta hildakoak. Gerra aurreko egoera. Calvo Soteloaren heriotzaren ondoren militarrek altxatu egin ziren.

16. Granadak eta hegazkinak

- **Erref:** ESK-043/033
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Granadak kanoiekin eta morteroekin jaurtitzen zituzten. Kalibreak. Hegazkinak. Leten jausi zen aireplano bat. Junker 88 hegazkinak Gasteiztik zetozen. Eibarren armamentu-lantegia zegoen, eta Francoren tropek har ez

zezaten dinamita jarri nahi zuten. Baina norbaitek metxa apurtu zuen. Batek kontatu zion Labe Garaiak apurtzea ere nahi zutela, baina ez zietela utzi.

17. Gerra hasi zenean

- **Erref:** ESK-043/035
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:45:25. **Bukatu:** 00:46:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

1936ko abuztuaren sartu ziren. Legutioko borroka Eskoriatzatik entzun zitekeen, azaroan. Bizkaia alderantz joandakoak bueltan etorri ziren.

18. Etxe bakoitzean soldadu bana

- **Erref:** ESK-043/037
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:46:43. **Bukatu:** 00:49:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Apirilaren hasieran ofentsiba egon zen. Erreketeak joan ziren orduan, San Inazio tertzioa. Etxe bakoitzean bat hartu behar zuten. Palentziako bat izan zuten beraiek etxean egun pare batean. Kanoiak non egon ziren; Asentziora egiten zuten tiro, eta mordoa hil ziren. Urte tristeak izan ziren.

19. Anaia, bost urtean soldadu

- **Erref:** ESK-043/038
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:50:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Nazien kontzentrazio-esparruak

Laburpena:

Frantzia zati bat okupatu zuten alemaniarrek; eta, zati bat libre zegoela konturatu zirenean, dena okupatu zuten. Han zeuden errepublikanoak kontzentrazio-esparruetan sartu zituzten. Batzuk lizentziatu egin ziren, eta bueltan berriro joan behar izaten zuten soldadu. Bere anaiari gertatu zitzaion hori. Bost urte soldadu, azkenean.

20. Gerra osteko gosea eta estraperloa

- **Erref:** ESK-043/042
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:51:43. **Bukatu:** 00:54:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gerra ostean ezer ez zegoen. Baserrian bertako gariaren zati bat eman egin behar zen, baina bestea zen. Oiloak eta arrautzak bazeuden, baina oliorik ez. Behiaren gantza ere erabili zuten batzuek. Indar gabe zeuden denak, goseak. Lantegira joaten zen, eta burdinarik ez zegoen. Txatarra erosi eta funditzera bidaltzen zuten. Estraperloa egiten zen. Latoia eta nikela nola lortzen ziren. Zulodun erreala. Garia alemaniarrek eramaten zuten.

21. Eskoriatzako lantegiak eta Tesa

- **Erref:** ESK-043/045
- **Iraupena:** 0:04:39. **Hasi:** 00:56:07. **Bukatu:** 01:00:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Gerra aurretik ere martxan zegoen tailerra. Uribarren eta konpainia zen hasieran, eta, gero, Tesa bihurtu zen. Hutsetik hasi ziren. Gerra aurretik ere txarra zen egoera. Aita Eibarren egon zen lanean, eta, 1929ko krisiaren eraginez, plazan janaria ematen zuten. Eskoriatzako lantegiak. Gatzagan egon zen sarraila lantegi bat, eta hangoak Arrasatera joanda egin zen Uni&ocute;n Cerrajera. Eskoriatzan Zubizarreta eta konpainia, Tesa eta Lantegi egon ziren. Lapikoak egiteko lantegiak: Alza, Ali, Geu... Gerraostean, lan asko zegoen. 1940-41ean sortu zen Tesa. Lantegiaren funtzionamendua nolakoa zen. Eskuz nikelatzen zituzten piezak. Bi pabilioi egin zituzten. Aitak 680 pezeta irabazten zituen hilean, eta sinsikatuari pezeta bat ordaintzen zion. 14 urterekin hasten zen lanean, "pintxe", eta 80 pezeta irabazten zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com